



## ***Dekorazioa***

2026ko ekainaren 12a  
[www.goiberri.eus](http://www.goiberri.eus)

Dekorazioa,  
itxurazko  
edukiarekin



bikain



**Bikain-en,  
gure altzariak  
zure hizkuntza  
hitz egiten dute**

BENETAKO  
ALTZARIAK  
BENETAKO  
ETXETARAKO

**Hemen ulertzen zaitugu,  
esamolderik gabe.**

Guretzat izateko modu natural bat da. Zerbitzu on bat emateko kontzeptu bat, benetan hurbil egon, entzun eta erantzutean oinarritzen dena.

Bikain Altzariak-en ulertu egiten zaitugu. Hori bezain sinplea. Suposatzen dugu horregatik daramatzagula 50 urte zurekin lanean.

**Zatoz gu ikustera. Hurbil gaude.**



[WWW.MUEBLESBIKAIN.COM](http://WWW.MUEBLESBIKAIN.COM)

Bikain eraikina · 20212 Olaberria (Gipuzkoa)

# Aurkibidea

## **4.** TENDENTZIAK

Joera nagusiak

## **6-7.** EGONGELAK

Jantokia egongelan txertatzeko  
lau modu

## **8.** LOGELAK

Ohe adimenduak

## **12.** BAINUGELAK

Spa puzgarriak

## **14.** SUKALDEAK

Hormen estaldura motak:  
abantailak eta desabantailak

## **16-17.** BILTEGIA

Despentsen indarra,  
baina formaz aldatuta

## **18.** ATARIA

Etxeko sarrera, ongi etorrirako gunea


### **Testuak:**

Izaro Villarreal  
Manex Usaralde



# MARGOGAI

PINTUREN, ERREMINTEN ETA PINTURA-MAKINERIAREN SALMENTA



Lazkaibar 1 BEASAIN - Tel.: 943 88 22 93 / 625 758 646 - [www.margogai.com](http://www.margogai.com) - [lazkaibar@margogai.com](mailto:lazkaibar@margogai.com)

# Tendentziak edo joera nagusiak

**Dekorazio joeretan, aurten, katalogoetako etxeak diruditenak baino gehiago, biziagoak, goxoagoak eta pertsonalagoak diren etxeak nagusitu dira. Joera nagusia argia da: testura gehiago, kolore gehiago, nahasketa gehiago eta material gehiago.**




Barandiaran

## TESTURAK NONAHI

Hormak jada ez dira leunak; denak du testura. Asko erabiltzen dira horma-paperak, batez ere erliebea dutenak, bolumena duten akaberak, edo hormetako ehunak. Material ezberdinen nahasketak ere egiten dira espazio bakarrean edota atzeko plano berean.

Gotelea ere itzuli dela diote adituek, baina bere bertsio luxuzkoenean. Ez da lehenagoko gotele hura, horma guztietan jartzen zena; askoz ere zainduagoa den testura bat da gaur egungoa, non eta nola jarri ondo pentsatuta aplikatzen dena. Hormen goiko frisoan jarri daiteke, edo gelako horma bakar batean soilik, horma horri garrantzia eta testura emateko.



## ZERAMIKA, ESPAZIO GUZTIETAN

Dekorazio elementu gisa geroz eta gehiago erabiltzen da zeramika, ez soilik bainugeletan edota sukaldeetan, bazik eta hormetan, egongeletan edota altzarietan ere txertatzen da. Zeramikaz egindako terraza osoak ere tendentzia dira gaur egun.



## KOLOREA

Zerbait argi badago, etxeetako koloreek izan duten bila-kaera da hori. Kolore zuria desagertu egin da, eta askoz kolore indartsuagoak erabiltzen dira orain, ilunagoak, terrakotak, berdeak, urdinak... Ez dira denak kolore ilunak; xehetasun txikietan ere tonu deigarriak erabiltzen dira: lanparetan, koadroetan, altzari txikietan... eta horrekin soilik espazioari beste bizi berri bat ematea lortzen da.

Azkenean, hauxe da gakoa: nortasun handiko etxeak egitea. Izan ere, dekorazioak nortasuna bilatzen du, pieza modernoek eta artisau-objektuen nahasketa egiten da, material naturalekin eta elementu bereziekin.



# Urteak etorkizuneko energia instalatzen

**D**uela urte batzuk instalazio fotovoltaikoekin lanean hasi gineanean, jende askok eguzki energia urruneko zerbait bezala ikusten zuen: garestia, konplexua edo etxebizitza gutxi batzuentzat bakarrik egokia. Gaur egun, urte hauetan egindako proiektu guztien ondoren, esan dezakegu autokontsumoa errealitate bihurtu dela etxebizitza, enpresa eta industria askorentzat.

## Panelak jartzea baino gehiago

Instalazio bakoitzaren atzean behar ezberdin bat dago. Adibidez, familia batzuek argindarraren faktura murriztu nahi dute; baserriek euren estalkiei ahalik eta aprobetxamendu handiena atera nahi diete; industriak, berriz, euren energia propioa sortzea erabaki estrategikotzat hartu dute.

Urte hauetan askotariko proiektuak egin ditugu: etxebizitza partikularretarako autokontsumo instalazioak, tamaina handiko industria-estalkiak, baserri eta nekazaritza ustiattegietan instalazio isolatuak, ibilgailu elektrikoentzako karga puntuen integrazioa, edota dauden instalazioen handitze eta optimizazio lanak.

Proiektu bakoitzak teknikoki hazten la-

gundu digu eta gure lan egiteko modua hobetzen joan gara.

## Esperientzia elektrikoa fotovoltaikara aplikatuta

Gure esperientzia ez da eguzki energian bakarrik oinarritzen, sektore elektrikitik baikatuz. Urte asko daramatzagu instalazio elektrikoetan, eta horrek guztiz baldintzatzen du instalazio fotovoltaiko bat egiteko modua.

Guretzat instalazio batek ez du energia sortzea bakarrik esan nahi. Instalazio horrek honakoa izan behar du: segurua, fidagarria, mantentzeko erraza, ondo dimentsionatua, eta hamarkadetan lan egiteko prestatua.

Horregatik, arreta berezia jartzen diegu askotan ikusten ez diren xehetasunei: babes elektrikoak, kanalizazioak, aireztapena-

ri, kargen oreka egokiari, monitorizazioari eta muntaiaren kalitateari.

## Benetako beharrak

Gure bezeroek gehien baloratzen duten gauzetako bat da instalazio bakoitza modu pertsonalizatuan lantzen dugula; ez dugu irtenbide estandarretan sinesten.

## Konfiantza obran irabazten da

Proiektu asko, lehenago gurekin lan egin duten bezeroen edo gomendioen bidez iristen dira. Eta hori da gehien baloratzen duguna.

Sektore honetan, marka edo osagaiez harago, benetan diferentzia markatzen duena instalazioa bera eta ondorengo zerbitzua dira.

Tapiaenergian lehenengo egunean beza-la jarraitzen dugu lanean, hurbiltasunez, kalitatez eta proiektu bakoitzarekiko konpromisoa hartuz.

## Etorkizuna hemen da

Energia fotovoltaikoa ez da ingurumenaren aldeko apustu bat bakarrik. Energiarekiko independentzia handiagoa lortzeko eta kostu elektrikoak kontrolatzeko tresna ere bada.

**Tapiaenergia**-n aldaketa horren parte izaten jarraitu nahi dugu, gero eta bezero gehiagori euren energia modu eraginkorrean eta seguruan sortzen lagunduz.

Guk egiten dugun instalazio bakoitzaren atzean ez daude panel fotovoltaikoak bakarrik. Konfiantza, lan teknikoa eta urtetako esperientzia daude. ■

EGUZKI ENERGIA PLAKAK

Diseinatu  
Instalatu  
Mantendu

  
**TAPIA**  
energia

943 889 594  
www.tapiaenergia.com

# Jantokia egongelan txertatzeko lau modu

Gaur egungo etxe askotan ohikoa da egongela, sukaldea eta jantokia espazio berean edo elkarren artean lotuta antolatzea. Hala ere, aukera egokia aukeratzea ez da beti erraza izaten; izan ere, etxebizitzaren tamainaren, estiloaren eta espazioari eman nahi zaion erabileraren arabera irtenbide ugari daude. Erabakia errazteko, hemen dituzu jantokia egongelan integratzeko lau modu, bakoitzaren ezaugarri eta gomendio nagusiekin batera.



## IRLA EDO BARRA BATEN BITARTEZ INTEGRATZEA

Gaur egungo formularik berrienetako bat da egongela, sukaldea eta jantokia konektatzea irla multifuntzional baten bidez edo trantsizio bisual gisa jarduten duen barra altu baten bidez. Jantokia partzialki integratuta geratzen da, baina bere nortasunari eutsita. Bereziki ondo funtzionatzen du etxebizitza garaikideetan eta loft estiloko espazio irekietan, non zabaltasuna, zirkulazio arina eta gizarte-bizitza dinamikoagoa bilatzen diren.

Dekorazio-gako nagusiak hauek dira: mahaiaren gaineko lanpara eskultorikoak, altuera ezberdinetan konbinatutako tabureteak zein aulkiak, eta material nobleak, hala nola egur naturala, harria edo mikrozementua.

## BEIRAZKO ITXITUREKIN EDO LAMEKIN BANATZEA

Argitasuna edo zabaltasun-sentsazioa galdu gabe espazioak bereizi nahi dituenarentzat, itxitura arinak irtenbide dotore bezain eraginkorrak dira, egungo interiorismoan oso erabiliak. Metalezko perfilak, beira ildaskatuko panelak edo zurezko lamak erabilia, jantokia bisualki mugatu daiteke isolatu gabe. Emaitzak sofistikazioa eta arkitektura zainduaren sentsazioa ematen ditu, eta bereziki aproposa izaten da hiri-egongeletarako edo sabai altuko etxebizitzetarako.

Horretarako dekorazio-gako nagusiak hauek dira: pribatasun handiagoa lortzeko beira testuraduna, berotasuna emateko haritzeko lamak, eta zonifikazioa indartzeko alfonbren erabilera.



## EGONGELAREN LUZAPEN NATURAL GISA

Aukera honekin jantokia guztiz integratzen da egongelan, estetika, materialak eta kolore-paleta partekatuta. Gakoa jarraitutasun bisuala sortzean eta beharrezkoak diren banaketak saihestean dago. Jantokiko mahaia normalean sofaren ondoan edo atzean kokatzen da, multzoaren barruan ia pieza eskultoriko bat balitz bezala funtzionatuz. Aukera ezin hobea da hau espazio zabalago eta argitsuagoak lortzeko, giro lasaiagoa sortzeko eta estetika koherentea mantentzeko.

Dekorazio-gako nagusiak hauek dira: zirkulazioa errazteko mahai biribilak, jantokia eta egongelaren artean koordinatutako tapizatuak, eta bi gunean bereizten dituen argiztapena.



## FUNTZIO ANITZETAKO JANGELA

Gero eta ohikoagoa da espazioa eguneko une ezberdinetara egokitzeko aukera ematen duten irtenbide eraldagarriak aukeratzea: mahai luza-garriak, banku jarraituak, altzari mugikorak edo pieza tolestagarriak erabiliz, jangela egongelan integratutako gune moldakor eta erabilgarria bihurtzen da. Aukera bereziki interesgarria izaten da tamaina ertain edo txikiko etxebizitzetarako, metro karratu bakoitza ahalik eta gehien aprobetxatzeko, alegia.

Dekorazio-gako nagusiak hauek dira: altzari arin eta moldakorak, erraz mugitu edo pilatu daitezkeenak, argiztapen moldagarria eta material bero zein erresistenten erabilera.



# Ohe adimenduak

**Atsedean arloari dagokion teknologiak eboluzionatu egin du. Gaur egun, ohe adimentsuak koltxoiaren egituraren parte dira. Ohe horiek gorputz ezberdinetara egokitzen dira, eta egitura motordunak dituzte lot egiteko denboran ere osasuna zaintzeko. Hiru mota ezberdinek ekarriko dituzte berritasunak 2026an.**

**1 Erosotasuna bermatuko duen koltxoi adimenduna.** Presioa, postura eta gaueko mugimendu guztiak kontuan hartuko ditu ohea norberaren beharretara egokitzeko. Postura aldaketak eta gerriko minak arintzeko pentsatutako teknologia da.

**2 Bikotean lo egiteko konponbidea.** Ohe bereko bi etzaleku ezberdin egokitzeko gaitasuna izango duen koltxoa da. Bi elementu osatzen du: nukleoak eta koltxoi nagusiaren gaineko geruzak. Nukleoaren bidez oheak sostengua bermatuko du. Nukleo bakarra izango du oheak bi pertsonentzako berdina. Gaineko geruzaren finkotasuna aukeratzea posible izango du bikoteko kide bakoitzak: leuna, erdikoa, finkoa eta oso finkoa.

**3 Osasunerako beharrezkoa den sostengua bermatuko duen ohe artikulatua.** Koltxoiari etekin handiena ateratzeko oinarria ezinbestekoa da. Ohe artikulatuak ospitalerako bakarrik izateari aspaldi utzi zion, eta etxeetako erosotasunaren erdigunean egotera igaro dira. Bi modutakoak daude.



**3.1 Egurrezko egitura duena.** Lurrundutako pagozko xaflen egitura dauka. Elastikotasun naturala eta erresistentzia bermatzen du. Mekanikoki nahi den bezala pertsonaliza daiteke, nahi den posizioan jarrita.

**3.2 Ohe motorizatua.** Logela konektatu bat izatea ahalbidetzen du. Ohe doigarri motorizatua, ohe bat ez ezik, ongizatea bermatzen duen sistema bat da. Gerrialdea zutik mantentzea ahalbidetzen du, eta aplikazio informatikoen bidez edo Bluetooth edo Alexa/Google bezalako ahots aginteekin kontrola daiteke.

# Ibaiondo

A R O Z T E G I A  
A L T Z A R I A K



Erreformak  
Konponketak  
Ateak  
Zoruak  
Altzariak  
Leihoak  
Eskailerak  
ZURE NEURRIRA

Sukaldeak  
Logelak  
Gazte logelak  
Egongelak  
Auxiliarrak  
Armairuak  
Deskantsua  
OROTAKO ESTILOAK



Katea kalea, 5 - Beasain

[www.mueblesibaiondo.com](http://www.mueblesibaiondo.com)

943 16 40 40 - 639 631 640

# TXINDOKIrent

KONPONBIDEAK ALOKATUZ / ZERBITZUAK SALDUZ  
Makineriaren alokairua eta salmenta

[alquilerestxindoki.com](http://alquilerestxindoki.com)

943 070 700  
Altune, 4 D-E 20212 OLABERRIA

Edozein barne lanetarako makina  
eta erreminta aukera zabala.  
Kontsulta gaitzazu!





Eraberritze integralak



PassivHaus



Leiho jasagarriak



Aerotermia



Barne diseinua



Eguzki fotoboltaikoa

# Etxebizitza efiziente eroso eta osasungarriak

# Barandiaran

= berrikuntzak | = materialak | = berriztagarriak

barandiaran.eus





## Spa puzgarriak

**Spa puzgarriek etxeko ongizatearen 2026ko joera markatuko dute. Diseinuan eta teknologian hobekuntzak aurkeztuko dituzte, esperientzia sentsorial beteago bat eskainiz.**

### KANPOALDEKO DISEINUA EFEKTU ARGITSUAREKIN

Modelo berri honek kanpoaldeko akaberan patroï argitsua dauka, gauez ikus efektu deigarria sortzeko asmoz. Argi efektu horrek, arreta guztia spari ematea lortzen du. Bainu bat hartzeko ez ezik, giroa sortzeko ere baliagarria izan daiteke. Terrazetarako eta jardinetarako geroz eta gehiago eskatzen da.

### GAUEKO ESPERIENTZIAN EZBERDINTZEN DA

Burbuiletatik haratago doan spa puzgarria da. Modelo horrek gauez esperientzia hobea eskaintzen du. Burbuilek, ur beroak eta argitasun girotuak sentsazio askoz ere limurtzaileagoa ematen dute.

### TEKNOLOGIA BETEA MODELO BAKARREAN

Lau pertsonarentzako edukiera dauka. Masajeak emateko 140 burbuilako sistema. Temperatura-tarte indartsudun berogailua. Iragazte hobetua edukiera handiagoko S2 kartutxoarekin. Karearen aurkako sistema barruko osagarriak babesteko. Gatzaga klorazioarekin osatua mantentze lan erosoago baterako.

### TELEFONO BIDEZKO KONTROL ADIMENDUA

Erabilpen erosoagoa, pertsonalatuagoa eta koherenteagoa da. Ez da teknologia kontu bat soilik, baizik eta eguneroko bizitzan spa integratzeko modu bat da. Esperientzia intuiziozkoagoa da, gaur egungo bizi estiloarekin hobeto datorrena.

egin zaitez

**HITZA** *kide*

Laguniezaguzu gizarte euskaldun eta informatua eraikitzen



[goierri.hitza.eus/hitzakide](http://goierri.hitza.eus/hitzakide)



**HARPIDETZA DIGITALA**

**50 €**  
urtean



**HARPIDETZA BATERATUA**  
(Goierri+Goierriko Hitza)

**100 €**  
urtean

ESPAZIOAK  
ZUREAK  
EGITEN...



COC  ON

by **Bigmat**

Hiribarren Kalea 34, 20210 Lazkao, Gipuzkoa  
[cocoon.urbil@bigmat.es](mailto:cocoon.urbil@bigmat.es) 688 786 189 \_ 688 785 881



## Hormen estaldura motak: abantailak eta desabantailak

**Etxebizitza bat berritzerakoan edo egiterakoan, sukaldea da denbora gehien eskaintzen zaion espazioa. 2026an, denboran irauten duten materialak izango dira protagonista. Horien artean, portzelanazko lurzorua dira erabilienak sukaldeetan. Kolorea edozein espazioren izaera indartzeko elementu lagungarria da. Horretarako, ezinbestekoa da zoladura eta estaldura.**

### AZULEJO TXURIAK

Kolore txuriari 'denboraz kanpoko' esaten zaio. Horregatik, 2026ko tendentzia ere izango da. Portzelanazko azulejoek ñabardura ezberdinez betetzen dituzte gaur egungo sukalde zuriak. Tonalitate horren barruan milaka ehundura, itxura eta erliebe daude estilo ezberdinekin konbinatzeko: nordikoarekin, minimalistarekin edo industrialarekin. Edozein modutan, argitasun gehitu bat eskaintzen du eta garbitasun sentsazioa indartzen du.

### KOLORE NEUTROAK

Horiek ere aurten ez dira atzera geldituko. Kolore horietan deigarriak egiten dira azulejo grisen urritasuna edo baldosa beixen erosotasun itxura.



### KOLORE ORGANIKOAK

Kolore neutroenetik dardaratsuenara protagonismoa irabazi dute 2026an organikoak. Horien artean, natura gogorarazten duten tonalitateak daude. Adibidez, azulejo berdeak tonalitate argiagotetan edo baldosa urdinak ñabardura sakonagoekin



Gozatzeko sukaldeak

suquia

sukaldeak eta  
etxetresna elektrikoak

Nafarroa Etorbidea, 16

Tel.: 943 884 375

BEASAIN

Kale Nagusia, 10

Tel.: 943 882 300

ORDIZIA

arrital



[www.suquia.eu](http://www.suquia.eu)



# Despentsen indarra, baina formaz aldatuta

Sukaldeak antolatzeko modua erabat aldatu da, eta 2026. urte honek argi erakusten du orain arte biltegitratzeko erabili izan diren armairu itxi tradizionalak gainbehera doazela. Horien orde, joera berriek espazio funtzionalagoak, praktikoagoak eta ikusmen aldetik ordenatuagoak proposatzen dituzte, non despentsak eta antolatzailerik adimendunak erdigu-nean kokatzen diren.

Lehentasuna dagoeneko ez dago

soilik diseinu estetikoan edo modako koloreetan, baizik eta eguneroko errutinarako espazio erosoak eta erabilgarriak sortzean. Horregatik, metro koadro bakoitza ahalik eta gehien optimizatzeko sistemak bultzatzen dira gaur egun, dena eskura izanda eta ikusmen-nahasmenik sortu gabe. Modulu moldagarriak, apal erauzgarriak, barne-bereizgailuak eta eguneroko elikagai, tresna eta produktuak azkar aurkitzeko irtenbideak integratzen dira.



## APAL ERAUZGARRIAK

Aproposak dira altzarien sakonera ahalik eta gehien aprobetxatzeko, irisgarritasuna galdu gabe. Sistema honek despentsa osoa desmuntatu beharrik ez izatea ahalbidetzen du produktuak aurkitzeko, eta ordena modu errazean mantentzen laguntzen du.

## ONTZI ETA ALTZARI GARDENAK

Protagonismoa hartzen ari dira, elikagaiak kategoriaka sailkatzeko eta barruan zer dagoen azkar ikusteko aukera ematen dutelako. Antolaketa hobetzeaz gain, produktuak hobeto kontserbatzen laguntzen dute, eta sukaldeari estetika minimalista ematen diote, kaos sentazioa murriztuta.

**Gaztelu**  
Iturgintza  
Berogintza  
☎ 943 88 80 29 - 943 16 14 64  
gaztelu.koop@gmail.com  
Esteban Lasa, 7 BEASAIN

Jarrai gaitzazu sare sozialetan

HITZA goiberri



## BARNE-ANTOLATZAILEAK, BEREIZGAILUAK ETA MODULU MOLDAGARRIAK

Etxe bakoitzaren tamainara egokitzen dira, eta espazioa berrantolatzeko aukera ematen dute, asteko erosketen edo familia bakoitzaren beharren arabera.



## DESPENTSA IREKIAK

Sukalde modernoetan gero eta gehiago bereizten dituzte despentsa irekiak, non ontzi, botila eta dekorazio-osagarriak erakusten diren, eta armairu itxiak, itxura garbiago eta diskretuagoa lehenesten dutenak. Bi aukerek helburu bera dute: eguneroko erabileran praktikotasuna, diseinua eta erosotasuna uztartzea.



# Bai Reformas

ERAIKUNTZAK - ERREFORMAK

ERRESTAURAZIOAK - BARNE DISEINUA

Goardia ind. 4 - Idiazabal 20213

943 88 76 40 - 677 577 339

info@baireformas.com

www.baireformas.com





# Atariak eta ezkaratzak: etxeko sarrera, ongietorriako gunea

**Etxeko sarrera pasabide arrunt bat baino gehiago da, egunerokotasunean etxeak ongietorria egiten dizun gunea, etxera sartu eta lehenengo ikusten den lekua. Sarrera erosoak, dotoreak eta sensorialak sortzera doa joera.**

Altzariak funtzionalitate diskretuetan oinarritzen dira. Biltegi-ratzeari, argitasunari eta beste funtzio gehigarri batzuei konpobidea emateko piezetan integratzen dira espazio ahalik eta

ondoan aprobetxatuz eta itxura garbiago bat bermatzeko asmoz. Ispilua duten kontsola zintzilikatuak irtenbide interesgarria dira zorua libratzeko eta espazio bertikala aprobetxatzeko. Gainera, zabaltasun bisual sententzia sortzen dute. Argitasun praktikoa eta eroso. Argitasunak ez du soilik funtzionaltasuna bermatzen. Korridorea argitzeaz gain, sartzen denari esperientzia sensorial bat sortzea da helburua, etxe barruan aurkituko duenerako prestatuko duena. Zeharkako argi-iturri leuna erabiliz lortzen da erosotasun giroa. Mahai-lanpara batekin foku-puntu bat gehituta, beharrezko argitasuna bermatuko da. Kolorearen tenperatura egokia 2.700-3.000 kelvin artekoa da; argi beroak lur tonuak sendotuz, egurren sakontasuna gehituz 'etxe sententzia' indartuta.

Ez baduzu hanka sartu nahi, sartu zure iragarkia IragarkiLaburrak.eus atarian

iragarki laburrak .eus

Hemen da online



**Txindoki**

**Sukaldea, gure etxeko berotasuna!**



[txindoki.eus](http://txindoki.eus)

# garmendia<sup>®</sup>

INSTALAKUNTZAK

Ezkiaga Etorbidea, 38  
**BEASAIN**  
Tel/Faxa: 943 16 47 13  
instalakuntzak@garmendia.eu

obra berrietarako ur eta berokuntza instalazioak  
iturgintza - aire girotua - erreformak - koordinaketa



Esperientzia  
handiko  
profesionalak

garmendia<sup>®</sup>  
INSTALAKUNTZAK



obra berrietarako ur eta berokuntza instalazioak  
iturgintza - aire girotua - erreformak - koordinaketa

instalaciones de fontanería y calefacción en obra  
reformas - calderas - aire acondicionado - coordinación

erosotasuna  
ondo egindako lanaren emaitza

confort

el resultado del trabajo  
bien hecho

